

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Epikarik bakoak



Igor Estankona

Oraindik buruz errezita nezake Josu Goikoetxearen 1991ko Urruzunoko "behelaino artifiziala/ kartoizko karriketan./ Hiria lotan da/ eta heroiak zera diotso/ neska bular politari: 'Deboirmetequieroadiós'/ Baina zuk ez,/ zu Englanden egon zinen/ eta haren ezpain lodietan/ besterik irakur dezakezu./ 'Imustgoloveyoubye'".

Eibarren Asier Serranok antolatzen zituen poeta gazteen egunetara etortzen zen, eta isiltasun lodi batekin entzuten genizkion Leonard Cohenenak bezain eder, biolentoak ziren poemak. Erreferentziak zeuzkan, oharturik zegoen erritmoaren garrantziaz. Poema haiek unibertsalak ziren, ulerterrazak, normalak.

Normaltasun hori, erraiak inarosten zizkiguna, horixe zen gehien miresten genuena. Eta joan dira ordutik zenbait negu luze, eta Goikoetxea (Gernika, 1974) poema liburu batekin dator, poema normalez egina, gaztaroko epikarik gabe apika, baina eguneroko bizitzako ekintza heroikoz bete: "Eta hara/ zentro komertzialeko/ arropa dendako/ probadorean/ gizon bat/ gortina ezdeus batek/ ozta estaltzen duen/ metro koadroan/ arropak probatzen".

Ahapaldirik ahapaldi giza urtarok badoaz eta badatoz. Haurtzaroa ageri da; baita amodioa ere; heriotzaren azken udaberria. Pozik egotekoa da bizirik egon eta Josu Goikoetxearen narotasuna dastatzea, bere begietatik ikustea zenbait trajedia gozo.

Zer luzea negu hau

JOSU GOIKOETXEA

Elkar, 2018

Josu Goikoetxea idazlea
(Gernika, 1974).



Poema itxuraz simple hauen konplikazioaren fruitu ote da lilurabide hori?

Hemen ez da betetzen Koldo Izagirrek *Balitzko erroten erresuman* zioen hura, alegia, ez garela gauza gezurra bezain eder esateko egia. Izan ere, zer da egia, zer gezurra? Giza existentzian, ez al dira biak edertzen? Engainu arrunt hori da liburuaren muina, bidaia den bezala helburuarena: "Itakara/ etorria/ hazia da/ huntz-orria// Ez laudoa/ ez loria/ galduz doa/ memoria".

Josu Goikoetxearen munduan ilintia, koaderno paper bat, aitaren berrokia... dena da arina eta era berean esanahiz kargatua. Dena da sakona eta artifizio bakoa. Dena gorena eta apala. Ez da erraza azaltzen, berben aukeraketarekin daukalako zerikusia. Eta barne-erritmoekin. Poeta gazteen egunetan inbidiaz entzuten genituen poema haiek direlako, hainbat negu eta gero, gugana itzuli. ■